



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko urriaren 2an

97 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).
- Foru lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako tutorearen figura arautu dezan. Osasun Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da. Osasun Batzordeak onetsia (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (9. or.).
- Biltzarrean izan diren alta eta baja (10. or.).
- Foru parlamentari Pilar Aramburo González andrea Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzea (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duena

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektuari egin zaizkion osoko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko ekainaren 25eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeak arautzen du Sarrigurengo udalez gairikoa plan sektorialak ukituriko eremuan erabili beharreko besterentze prozesua. Gobernuak aurkeztu duen lege proiektuaren asmoa da aldatzea jarduera ekonomikoen edo aukeren eremuan sartutako ondasunak besterendu edo eskualdatzeko prozedura.

Jarduera ekonomikoen eremu horretan sartutako ondasunak besterendu edo eskualdatzeko prozedura oso ongi arauturik dago lege horren hirugarren artikuluan. Hona testua:

“3. Lehendabiziko artikulua aipatzen dituen ondasunak, jarduera ekonomikoen eremuan sartutakoak, besterendu edo eskualdatzeko enkante publikoaren prozedura erabili beharko da nahitaez.”

Nafarroako Gobernuak lege proiektu horrekin nahi duena da artikulua hori soilik aldatzea, jarduera ekonomikoen eremuan sartutako ondasunak besterentzeko prozedura nahitaezkoa enkante publikoa izan ez dadin eta haren ordeztutakoak ezartzeko, hala nola, lehiaketa publikoarena, Nafarroako Gobernuak sustaturiko industrialdeetan lurzatiak saltzeko adjudikazioaren baldintzak arautzen dituen azaroaren 28ko 249/1986 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz ez da beharrezkoa beste lege bat onestea Sarrigurengo jardueren eremuan sartutako ondasunak besterentzeko, badugulako Nafarroako Parlamentuak berriki onestitakoa eta besterentzeko prozedura gisa enkante publikoa ezartzen duena, arestian esan bezala.

Eremu horretarako 14/2000 Foru Legean aurreikusitako erabilera ez da funtsean aldatzen Nafarroako Gobernuak Sarrigurenen “Berrikuntza Hiria” kokatzeko asmoaren eraginez. Izan ere, proiektuak ez du aldatzen eremu horretarako aurreikusitako jarduera ekonomikoen kontzeptua, eta ez da, halaber, industria proiektu bat, industrialdeetan lurzatiak saltzeko adjudikazioa arautzen duen 249/1986 Foru Dekretua aplikatzea eskatzen duena.

Bestalde, ez gaitu gogobetetzen Gobernuak bere lege proiektuaren zioen azalpenean emandako arrazoiak ere, alegia, “Berrikuntza Hiria” gauzatzeko xedearekin lurzati horiek neurritzko prezioan eskaintzeak, erabilera berria eta egungo legean aurreikusitako merkataritzako erabilerarako lurzorua besterentzeko enkantearen prozedura bateraezinak direla esanez. Ez gaitu gogobetetzen, legean bertan aurreikusirik dagoelako eremu horretako erabilerak jarduera ekonomikoetarako izan ahal direla eta “Berrikuntza Hiriarekin” lotuta

ko enpresak ekonomia eta merkataritzaren arlokoak direlako industria arlokoak bainoago.

Baina lurzoru publikoaren ondare erreserbarik ez izatea, Nafarroako milaka herritarrek etxebizitza edukitzeko duten premiei erantzuteko behar adina ekimen sustatzea eragozten baitu, arrazoi nagusia izan da sozialistok Gobernuaren lege proiektuaren kontrako jarrera hartzeko. Kontuan harturik Gobernuak dagoen lurzoru publiko apurra besterentzean beharturik dagoela ahalik eta baliabide ekonomiko gehien biltzera Foru Komunitateko Lurzoru Publikoaren Bankua sortzeko, honek Nafarroan etxebizitzaren arazoari konponbidea eman dezan. Alderdi hori 14/2000 Foru legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ageri da, hitz hauekin:

“Bigarrena. Sarrigurengo ondasun publikoak besterentzearen ondorioz lorturiko baliabide ekonomikoak lurzoru gehiago erosteko erabiliko dira, eta horrela lurzoru ondare publikoaren erreserba handitzera bideraturiko etxebizitza arloko ekimen publikoko jarduerak ahalbidetzeko.”

Arazoi horietan oinarriturik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak osoko zuzenketa aurkeztu du Nafarroako “Berrikuntza Hiria” sustatzeko, jarduera ekonomikoaren edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakion.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Gobernuak Sarrigurenen esku hartu du lurzoruaren ondare publikoa sortzeko, babestuko etxebizitzak sustatzeko lehentasunezko helburuarekin; hortaz, Nafarroako Gobernuak Sarrigurenen gauzatuko duen jarduketak etxebizitza publikoaren arloko politikaren garrantzi handiko parte izan beharko du.

Ildo horretan, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen Sarrigurengo lurzoru publikoaren zati bat jarduera ekonomikoaren edo aukeren eremurako izatea, etxebizitzetarako eremu baten beharrei loturiko merkataritza edo aisialdiko jarduerak izanik gogotan. Horrez gain, jarduera horien inguruan interes ekonomiko handiak zeudenez, Parlamentuak garrantzitasuna bermatu zuen lurzoru publikoa besterentzerakoan enkantea ezarritik prozedura gisa.

Halere, Nafarroako Gobernuak proposatzen du foru lege proiektu honetan bere garaian onetsita-

koa aldatzea eta jarduera ekonomikoaren edo aukeren eremuan “Berrikuntza Hiria” izenekoaren ezarpena aurreikustea eta lurzoru lehiaketa bidez besterentzea.

Gure taldearen iritziz industria jarduera bat, garapen teknologikoarekin zerikusia badu ere, ez da Sarriguren bezalako etxebizitza eremu batean ezarri behar. Zentzuzkoa da hiri edo etxebizitza guneen kanpoaldean kokatzea. Badira industria jarduera baterako baldintza hobek dituzten kokaguneak. IUN-NEB taldean uste dugu jarduera ekonomikoaren edo aukeren eremuan aurreikusitako garapenerako trabak baldin badaude egin beharrekoa dela babestutako etxebizitza gehiago sustatzea, eta ez “Berrikuntza Hiria” delakoa.

Gainera, aukeren eremu osoan enkantearen prozeduraren orde lehiaketarena erabiltzeko justifikazioa ez datza “Berrikuntza Hiria” delakoak izan diren tamainan eta azaleran; badirudi Nafarroako Gobernuaren benetako asmoa dela desgitea Parlamentuak erabaki zuena, alegia, eremu horretan besterentzeko enkantearen prozedura erabiltzea.

3. ZUZENKETA

BATASUNA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Sarrigurengo udalez gairako plan sektorialak ukitzen duen eremua besterentzeko prozesua arautzen duen 14/2000 Foru Legearen 3. artikulua argi uzten du jarduera ekonomikoaren edo aukeren eremuan sartutako ondasunak besterendu edo eskualdatzeko nahitaz erabili beharreko prozedura enkante publiko dela.

Enkantearen eta lehiaketaren arteko eztabaida tekniko alde batera, lege honi buruzko eztabaidak agerian utzi zuen UPNren Gobernuaren asmoa zela ondasun hauek besterendu edo eskualdatzeko prozedura lehiaketa izatea, era horretan askatasun askoz handiagoaz gauza zitzakeelako zenbait eragile ekonomikorekin zituen hitzarmenak, hedabideen bitartez zabalduak. Azken emaitza, ordea, ez zen Gobernuaren gustukoa izan, eta hori dela-eta trikimailu bat erabili nahi du orain, haren iritzia, gutxiengoarena bada ere, inposatzeko.

Hortaz, gure ustez proiektu hau ez da, foru lege proiektuaren zioen azalpenean esaten denez, “enpresa berritzaileak kokatzeko, tamaina, sarbide, ekipamendu eta zerbitzu egokiak izateko aukera”, Parlamentu honek Gobernuaren nahia- ren kontra foru lege hartan onetsitakoa zuzentzeko ahalegina baizik.

Itzultzeko zuzenketa hau aurkeztuta, gure taldeak galarazi nahi du Sarrigurengo etxebizitzetarako eremuak -baita Nafarroako Gobernuak bere nahierara alde horretan, Mendillorri adibidez, edo beste toki batzuetan ere, Gorraizen, kasu, zenbaitetan eskualdeko hirigintza arauak aintzat hartu gabe, kokatzen joan den etxebizitzetarako eremu guztiek ere- beharrezko dituen zerbitzuak desagertzea eta haien ordez berritzailearen kalifikazioa jaso duen industria gune bat ezartzea.

Begien bistakoa da Nafarroako Gobernuaren asmoa lege proiektu hau aurkeztean izan dela bideak irekitzea lurzorua besterentzeko "neurrizko prezioan" lagatzeko, hau da, lurzorua merke eskaintzeko zenbait enpresa pribilegiaturi altxor publikoaren kargura.

Horrenbestez, gure iritzia da beharrezkoa dela Parlamentuak foru lege proiektu hau itzul dezan, helburua ez baita Sarrigurenek eta eremu horren inguruko etxebizitza eremuek dituzten premiei erantzuna ematea, baizik eta lurzoru merkea lortzeko zenbait enpresak duten nahia asetzea.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Abenduaren 29ko 14/2000 Foru Legeak Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak

ukituriko eremua besterentzeko prozesua arautzen du. 3. artikuluan ezarri zuen jarduera ekonomikoen edo aukeren eremuan sartutako ondasunak besterendu edo eskualdatzeko prozedura enkantea dela.

Foru Lege proiektuaren helburua 3. artikulua aldatzea da, enkantearen nahitaezko prozedura baztertzeko, lurzoru hori etxebizitzetarako lurzoruaren baliokidetzat hartuta kapital publikoko sozietateei eta hirugarrenei eskualdatzeari dago-kionez.

Enkante publikoa nahitaezko prozedura izatea Nafarroako Parlamentuan gehiengoz erabaki zen, ahalik eta gardentasun, publizitate eta aukeren berdintasun handiena lortzeko asmoarekin, lurzoru publikoa zuzenean saltzeak, adjudikazio hartzaileei etekin handiak eskuratzeko aukera ematen badu ere, duen ezkutuko izaeraz ohartuta. Hori dela-eta ez dago baiezkorik esaterik lehiaketa onartzen duen etxebizitzaren araudirekin parekatzeari, lehiaketaren hautazkotasuna besterentzea arautu behar duten printzipioen kontra baitoa.

Hori guztia dela eta, proposatzen dugu Nafarroako Gobernuari itzul dakion Nafarroako "Berrikuntza Hiria" sustatzeko, jarduera ekonomikoen edo aukeren eremua besterentzeko prozesua arautzen duen Foru Lege proiektua.

Foru lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 24an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko urriaren 4ko eguerdiko hama-biak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua

2001eko uztailaren 11ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 24an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2001eko urriaren 29ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena

2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 2001eko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da meningitisari buruzko informazio kanpainak egin ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-kanpaina sakona egin dezan, gurasoei, ikastetxeei, gurasoen elkar-teei, haurtzaindegiei eta haurrekin kontaktuan lan egiten duten langileei zuzendurikoa, Oinarrizko Osasun Laguntzako sarea eta beharrezkotzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz, meningitisarekin zerikusia daukan guztia argi azaltzeko: motak, prebentzioa, txertatze-irizpideak eta txerto-egutegia.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako tutorearen figura arautu dezan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 2001eko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako tutorearen figura arautu dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da MIR sistemaren barrenean prestatzen ari diren espezialistentzako tutorearen figura arautu dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Prestatzen ari diren espezialisten tutorearen figura arautu dezan, besteak beste honako irizpide hauek kontuan hartuz:

– Lanaldiaren banaketa proportzionala ezartzea, esleituriko tutoretza-lanen arabera.

– Tutoretzan jarduteko pizgarriak ematea, erantzukizun handiagoa eta lan-zamen arteko ezberdintasunak kontuan izanik.

– Tutoretza-laneko jarduna lanbide-karreraren aitortzea, emandako zerbitzuak aitortuz eta horiek kasuan kasuko baremoetan islatuz.

– Tutoreen prestakuntzarako sistemak ezartzea; oso bereziki, motibazio-, gainbegiratze- eta ebaluazio-teknikei dagokienez.

– Zentroetako irakaskuntza-jarduerari berariaz atxikiriko giza-, gauza- eta ekonomia-baliabideak gehitzea.

Erabakia. Horren bidez, drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 2001eko irailaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko irailaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, drogazaleenganako arreta dela-eta zenbait neurri hartzeko eskatzen da

1. Modu objektiboan azter dadila, ebaluazio-azterlanak eginez, zerbitzuen funtzionamendua, lorturiko emaitzak alderatuz lortu nahi den kalitate-ereduarekin.

2. Aldizka zentro itunduek (komunitate terapeutikoak) ematen duten laguntzaren kalitatea azter dadila.

3. Zentro itunduetako talde terapeutikoen jarraikortasuna berma dadila.

4. Erabiltzaileen doako laguntza berma dadila.

5. Adimen Osasuneko Sareari eman dakizkiola azpiegituretan eta langileetan behar dituzten baliabideak.

6. Azter dadila Nafarroako Foru Komunitatean patologia bitarikoak tratatzeko eta abusuzko drogen mendekotasuna.

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia 2001eko abuztuaren 3ko 94. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2001eko uztailaren 2ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aipatu deialdiaren 4. oinarriak xedatutakoarekin bat, jarraian onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen da.

Halaber, aipatu deialdiaren 6. oinarriak xedatutakoarekin bat, urriaren 24an, asteazkena, 10etan, Administrazio Publikoko Nafar Institutuko P.M. 1 eta 2 ikasgelatan (k/ Nabarrera, 39) lehenbiziko ariketa eginen dela jakinarazten da.

Onartuak:

Aguerri Olcoz, Ana
 Aladrén Sierra, Eva María
 Alcate Moriones, Gloria María
 Alonso de Mur, María Adela
 Ancizu Ayesa, Susana
 Andraiz Labairu, Francisco Javier
 Angulo Tobalina, Leandro
 Areta Arrastia, María Nieves
 Arizaleta Primo, Alicia
 Ariztia Miura, María Arantzazu
 Ariztimuño Gorostegui, Teresa
 Armendáriz Navarro, Virginia
 Armendáriz Semberoiz, Helena
 Arnaiz Irigaray, Pilar Jaione
 Astorga Lete, Mercedes
 Azcona Ema, Patricia
 Azcona Lasheras, Ana Teresa
 Bengochea Carpena, Amaya
 Campión Larumbe, Marta
 Ceballos Indacochea, María Lourdes
 De Pedro Rodrigo, Juan Luis

Echauri Cortaberría, Amaia
 Echeverría Echeverría, Mercedes
 Erviti Gastesi, Margarita
 Erviti Gastesi, María Izaskun
 Escosteguy Goñi, María Dolores
 Fernández Gastón, Enara
 Galar Apesteguía, Miriam
 García Loire, María Rosa
 Garmendia Goicoechea, Patxi Xabier
 Gil Goñi, Ione
 González Senosiáin, Esperanza
 Goñi Sarasibar, Beatriz
 Goñi Villanueva, María Jesús
 Goya Escudero, Paula
 Goyeneche Aguirre, María Carmen
 Guillorme Urmeneta, Alberto
 Gutierrez Serrano, María Camino
 Huarte Alargunsoro, Luis
 Huarte Iturri, María Nieves
 Iglesias Vélaz, Elisa
 Iriarte Barca, María Yolanda
 Itúrbide Hornero, Carlos Javier
 Itúrbide Irurzun, Javier
 Iturralde Borda, Gloria María
 Iturri Villanueva, Beatriz
 Jiménez de Miguel, Roncesvalles
 Jimeno Torres, Francisco Javier
 Lanz Galarza, María Carmen
 Larramendi Echaide, Joaquina
 Larrayoz Ezpeleta, María Cruz
 López Echarte, María Carmen
 López Goñi, Verónica
 Loyola Eraso, José
 Lumbier Echeverría, Carmen

Mariezcurrena Baleztena, Jaione
 Martínez Acedo, Esther
 Mauleón Antonio, Fernando
 Monteano Sorbet, Peio Joseba
 Moreno Garalut, Encarna
 Moreno Santiago, María Lourdes
 Munguira Elizondo, Ana Isabel
 Muñoz Arrieta, Olatz
 Naval Núñez, Trinidad
 Núñez Rosón, Yolanda
 Olaiz Zoroquiain, Francisco Javier
 Oquiñena Simón, Ana María
 Osés Marín, Ana María
 Pipaon Merino, Divina
 Recalde Iglesias, Marta
 Reta Muruzábal, María José
 Ripa Nava, Lourdes
 Rodríguez Ferro, María Jesús
 Rodríguez Palacios, Sofía
 Sáenz de Navarrete García, María Dolores Susana
 Sáez de Jaúregui Pérez de Eulate, María Isabel

Sagüés Guillén, Alberto
 San Francisco Zabal, Miren Gurutze
 San Martín Hermoso de Mendoza, María Dolores
 San Martín Menéndez, José Ignacio
 San Martín Salvoch, María Pilar
 Santos Peña, Patricia María
 Sarasa Amatrian, Lucía
 Sepi Izco, Sonia
 Seviné Ruiz, María Mercedes
 Sorroche Sedano, Juan Miguel
 Suárez Sanabria, María Mar
 Torres Lizasoain, Sara
 Torres Suescun, José Luis
 Úbeda Ruiz, Alberto Óscar
 Urdánoz Zandío, María Concepción
 Vidador González, Ana Dolinda
 Yarnoz Yaben, Alberto

Baztertuak:

Inor ez

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Biltzarrean izan diren alta eta baja

Baja: Virginia Izquierdo Barásoain andrea

Alta: Pilar Aramburo González andrea

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru parlamentari Pilar Aramburo González andrea Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko irailaren 24an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Pilar Aramburo González andreak, irailaren 18an bidalitako idazkian, jakinarazi zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzen zela. Idazki hori ikusita, hona ERABAKIA:

1. Aipatu idazkiaz jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko irailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--